

Euskara Elkarten Mugimenduaren izanaz eta izaeraz gogoeta parte hartzailea antolatzea izango da Topagunearen hurrengo urteetako jardueraren ardatza

- **Euskara Elkarten Mugimendua hizkuntza komunitatea trinkotu eta zabaltzen eragile aktibo izaten jarraitzea eta sakontzea ditu helburu Federazioak**
- **Hiztun norbanakoen zein erakundeen euskararen erabileran eta atxikimenduan eragitea dira Euskara Elkarten lanaren ardatzak.**
- **Barne gogoeta prozesuak Euskara Elkarten Mugimendua berritzeko helburua dauka eta Topaguneak erakunde irudi berritua aurkeztu du, erronka eta garai berriei egokitzeko asmoen adierazle.**
- **Topakide txartela banatuko da 11.000 bazkideren artean**

BILBO, 2009/03/24.- **Topagunea Euskara Elkarten Federazioak** haren Zuzendaritza Batzordeak azken urtean egindako hausnarketaren emaitza aurkeztu du gaur, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egindako prentsaurrekoan.

Hausnarketekin batera, Topagunearen erakunde irudi berritua eta Euskara Elkarten bazkide txartel bateratua ere aurkeztu dituzte Jasone Mendizabal zuzendariak eta Iker Martinez de Lagos idazkariak, eta Elgoibarko Izarra euskara elkarteko ordezkari Imanol Larrañaga izan dute lagun.

Hizkuntza komunitatea trinkotu eta zabaldu

Euskara Elkarten mugimenduak 25. urteurrena ospatu du 2008 urtean, Arrasateko AED elkartearen sorrera gogoratu den urtean. Federazioak hamaika urtetan egindako ibilbidearen gaineko hausnarketa egin du Zuzendaritza Batzordeak eta hurrengo urteetako erronka nagusiak zehaztu ditu. Azken bi urteetan Topaguneak antolatutako [e2i](#) eta [esku era](#) jardunaldiak ere lagungarriak izan dira hausnarketa hori egiteko.

Euskararen normalizaziorako plangintzetan azken urteotan erabileraren garrantziari gero eta aitorten zabalagoa ematen zaiola adierazi du Jasone Mendizabalek. Euskara Elkarteek mugimenduak, bere sorreratik bertatik landutako bidea dela ikusita, pozgarritzat jo dute Topagunearen ordezkariak euskararen erabilera bultzatzeko helburuek erakunde mota ezberdinetan zentraltasuna hartu izana. Helburu horiek gauza daitezen estrategia egokiak eta baliabide nahikoak bideratzea izango da hurrengo erronka. Bi ardatzetan egituratzen dute bere jarduera Euskara Elkarteek (euskararen erabilera bultzatzea eta sentsibilizazioaren bidez herritarren eta erakundeek euskararekiko atxikimenduan eragitea) eta bi ardatz horietan jarraituko du Topaguneak ere aurrerantzean bere lana antolatzen.

Euskararen normalizazioa helburu harturik, Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak garapenaren oinarria euskaldunon hizkuntza komunitatea trinkotu eta zabaltzean jarri duela azaldu du Mendizabalek eta Euskara Elkarteek mugimenduak helburu horiekin lan eginez berebiziko garrantzia duela gogoratu du.

Topaguneak hurrengo hiru urteetarako barne hausnarketa prozesu parte hartzailea antolatuko duela azaldu du Federazioko zuzendariak, kongresu batean amaituko den prozesuan. Bazkideekin landu nahi den gogoetaren oinarria izango da hizkuntza komunitate antolatuaren gune modura tokian tokiko Euskara Elkarteek funtzioa berritzea eta aldarrikatzea. Xede nagusi hori aintzat hartuta Hizkuntza Politikaren oinarriak, parte hartzea eta sentsibilizazioa moduko gaiak izango dira aztergai prozesu honetan. Topaguneak prozesua ilusioz abiatzen duela azpimarratu du Jasone Mendizabalek.

Irudi berritua

Garai berriari irudi berriarekin helduko diola azaldu du Iker Martinez de Lagos Topaguneko idazkariak. Federazioaren 12 urteko ibilbidean erabilitako irudia berrituta, Euskara Elkarteek aniztasuna, hurbiltasuna eta bilgune izaera jasotzen dituen erakunde irudia landu du.

Irudi berria Zuzendaritza Batzordetik abiatu eta bazkideekin landu nahi den gogoeta prozesu berrirako ikurra izatea nahi du Topaguneak.

Bazkide txartela

Hirugarren ekimen bat ere aurkeztu du Topaguneak Bilbon egindako prentsaurrekoan, Topakide txartela, Euskara Elkarteek bazkide txartela. Euskara Elkarteek mugimendua Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan ondo txertatutako mugimendua dela ekarri du gogora Imanol Larrañagak, Elgoibarko Izarra Euskara

TOPAGUNEA. Hedabide Saila
Arlozabal 8 bis, 1. C. 48220 Abadiño
94 681 48 21 – 616 11 87 95
aldizkariak@topagunea.org
www.topagunea.org



Elkarteko ordezkariak. 20.000 bazkidetik gora dituzte gaur egun Topagunea osatzen dute Euskara Elkarateek. Aspaldiko helburuari erantzunez, bazkide txartel bateratua prestatu da azken hilabeteetan.

21 Euskara Elkarateetako 11.000 bazkidek izango dute apirilaren bukaeratik aurrera esku artean gaur aurkeztu den bazkide txartela. Aurrerantzean gainontzeko Euskara Elkarateek ere beren kideentzako txartela banatzeko aukera izango dute.

Txartelak hiru helburu nagusi dituela azpimarratu du Larrañagak: tokian tokiko Euskara Elkarateen bazkideak mugimendu zabal bateko kide direla ikustaraztea, Euskara Elkarateen arteko jardun koordinatua bultzatzea eta Euskara Elkarateen Mugimenduaren jardueraren bolumena erakustea.

Txartelaren jabeek, inguruko Euskara Elkarateen jardueretan abantailak lortu ahal izango dituzte maiatzetik aurrera, beraz, eta etorkizunean txartelari bestelako erabilgarritasunak ere emango zaizkiola azaldu da.